

PRODUKZIOAREN GORABEHERENGATIKO ALDI BATERAKO KONTRATUA

Kolektiboa:

- Merkatuaren gorabeherek, zeregin-metaketek edo eskaera gehiegi jasotzeak eragindako eskaerei erantzuteko edozein langile.

Iraupena:

- Gehienez 6 hilabete 12 hilabeteko aldiaren barruan, oro har, hitzarmen kolektiboaren bitartez aldatzeko aukerarekin.
- Mugagabe bilakatuko litzateke:
 - Idatziz jasota ez badago.
 - Gizarte Segurantzaren alta eman ez bada, probaldia amaitu eta gero.
 - Amaiera iritsi eta aldeetako edozeinek iragarpenik egin ez badu, eta lan-prestazioa gauzatzen jarraitzen bada.
 - Lege-iruzurrez egindako kontratuak.
- Kontratuaren iraupena legezko gehienekora iristen ez bada, kontratua behin luzatzeko aukera izango da, gehieneko iraupena gainditu gabe.

Jardunaldia:

- Osoa edo partziala.

Oharrak:

- Idatziz 4 astetik gorako kontratuatarako eta lanaldi partzialeko kontratuatarako.
- Kontratua azkentzean langileari kalte-ordaina dagokio, hain zuzen ere 9 eguneko kalte-ordaina zerbitzu-urte bakoitzeko 2012/12/31ra arte egindako kontratuatarako, urtean egun bat urteko gehituta 2015eko urtarrilaren 1era arte, egun horretatik aurrera kalte-ordaina zerbitzu-urte bakoitzeko 12 egunetan finkatuko delarik.
- Kontratua justifikatzen duen kausa edo gorabehera argi zehaztu beharko du kontratuak, baita iraupena eta egin beharreko lana zehaztu ere.

Aplikatzeko araudia:

- [35/2010 Legea](#), irailaren 17koa.
- [2720/98 Errege Dekretua](#), abenduaren 18koa.
- [11/2013 Legea](#), uztailaren 26koa.
- [Urriaren 23ko2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 15. artikulua](#).
- [3/2012 Legea](#), uztailaren 6koa.

